

PUBLICACIONES

Luzaideko euskararen hiztegia

Peio Kamino eta Patxi Salaberri

Iruñea: Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindia, 2007, 206 or.

Joan den aspaldian hizkera askoren deskripzioak plazaratu dira Euskal Herrian. Hizkera horien gaineko liburu eta artikulu ugari egin da, baina oso gutxi Ipar Euskal Herrian. Zehatzago esateko, Beskoitze herri lapurtarrekoa da eskura daukagun bakarra, Henri Duhauk egina (1993-2003). Uztaritze aldeko hizkerak ere aztertu zituen Irantzu Epeldek, baina orain artean haren laburpenak baizik ez dira atera argitara (*FLV*: 2004 eta *Euskerà*: 2004). Horretaz gainera, Jean-Baptiste Coyosek Zuberoako euskararen oinarritutako doktore tesia daukagu, *Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité* (1999) eta Iñaki Caminok (*FLV*: 2004) Nafarroa Behereko euskaraz gertatutako ikuspegi orokorra.

Deskripzio lan horietan deklinabidea, aditza eta bertako perpaus motak erakutsi dira gehienbat, eta oso bigarren mailan utzi dira gainerako alderdiak, besteak beste, lexikoa. Hori dela eta, XXI. mendean bertan ezezagunak ditugu hitz askoren eremuak. Zehaztu gabe dago, esate baterako, *akitul nekatu*, *aukeral hautua*, *batez erel batik bat*, *behinik behin* / *behintzat* / *bederen*, *benetan* / *zinez*, *bidenabar* / *bide batez*,

ezinbestean / *nahitaez* / *baitezpada*, *gabonak* / *leguberriak*, *izter* / *azpi*, *orpol* / *aztal*, *sakabanatul* / *hedatul* / *barreiatu*... bezalako hitzen eremu banaketa. Eta zehaztu gabe dago, era berean, non erabiltzen diren *aldats*, *arbel*, *atso* eta *agure*, *atzen*, *bekoki*, *erbeste*, *ereintz*, *erru*, *eskeko*, *galtzarpe*, *gorroto*, *konpondu*, *laztan*, *mingots*, *orkatila*, *tolestu*, *txukun*, *uhal*, *zintzo*, *zital*... bezalako hitzen esparrua. Eta begi bistakoa da aipatutako hitzak ez direla inolaz ere bereziak eta bitxiak, eguneroko jardunean erabili ohi diren oinarri-oinarrizkoak baizik eta, beraz, lexikografia alorrean zein atzeratuta gauden ozen eta garden salatzen dutenak. Hitz horien mugen berri jakiteko, Azkueren hiztegia (1905-6) daukagu eskura, eta orain baita *Orotariko Euskal Hiztegia* ere, baina garbi dago hiztegi horiek ematen dituzten argibideak zehaztu eta eguneratu beharra dagoela.

Eta behar horrek eraginda, hain zuzen, joan den aspaldian herri eta eskualdeetako hiztegiak azaltzen hasi dira. Hauexek dira osoenak eta esanguratsuenak nire iritzian: Baztangoa (Izeta: 1996), Erronkarikoa (Estornés: 1997), Sakanakoa (Erdozia: 2004) eta Leitzakoa (Olano: 2005) Nafarroan, Zestoakoa (Azpeitia:

2003) Gipuzkoan, eta Eibarkoa (Etxebarria: 1965-6 eta Basauri & Sarasua: 2003), Bermeo eta Mundakakoa (Barrutia: 1996, 2000), Urdulizkoa (Gilisasti: 2003), Bergarakoa (Elexpuru: 2004), Nabarnizkoa (Martínez de la Cuadra: 2006) mendebalean. Hor daude, era berean, Kandido Izagirrek Nafarroako eta Gipuzkoako zenbait alderditan, Iñaki Gamindek Bizkaian eta Aitor Aranek Nafarroan osatu dituztenak.

Azken urte hauetan, gainera, hizkerak deskribatzen jardun duten zenbait lagunek ere leku zabala egin diote lexikoari. Horren lekuko dira ondorengo azterketak: Getxokoa (Hualde & Bilbao: 1992), Lekeitiokoa (Hualde, Elordieta & Elordieta: 1995), Antzuolakoa (Larrañaga: 1998), Urdazubi eta Zugarramurdiakoa (Montoya: 2004), Baztangoa (Salaburu & Lakar: 2005), Mallabikoa (Mugarza: 2006), Elgoibarkoa (Makazaga: 2007)...

Horrenbestean, hiztegi sorta polita daukagu dagoeneko eskura, baina bat bera ere ez Ipar Euskal Herrikoa. Alderdi hartako euskararen berri izateko, Jean Larrasketek Barkoxe herri zuberotarrean bildutakoa erabili dugu sarri, baina aspaldikoa da hori, 1939an argitaratutakoa eta, beraz, zaharrituta dagoena.

Eta hain zuzen, Ipar Euskal Herrian geneuzkan hutsuneak betetzen laguntzera etorri da Peio Kaminok eta Patxi Salaberrik argitaratu duten Luzaideko hiztegia. Luzaide herri nafarra da administrazioz, baina behenafarra edo, zehatzago esateko, garaztarra hizkuntzaz. Argiro ikusten da kokagune hori hiztegiari begiratuta: Ipar Euskal Herritik elikatu da Luzaideko hizkera. Hangoak dira –hala us-te dut, behintzat– hiztegian ageri diren hainbat hitz: *abantzu*, *agian* ‘ahal!’ adierarekin, *agorri*, *aiztur*, *alimaleko*, *altxagarri* ‘legamia’ adierare-

kin, *andeddar* (< *andereder*), *apairu*, *harrabots* eta *azantz*, *Bestaberri*, *biziki*, *bubame*, *buruil*, *debaldetan* ‘alferrik’ adierarekin, *estakuru*, *estekatu*, *gako* ‘giltza’ adierarekin, *galdin* (< *galdegin*) ‘eskatu’ adierarekin, *gisako* ‘atsegin’ adierarekin, *haurride*, *hauts* ‘errauts’ adierarekin eta *errauts* ‘hauts’ adierarekin, *herra*, *iakoitz* ‘larunbata’, *ihardetsi*, *ilar* ‘indaba’ adierarekin, *iskilinba*, *izartu* ‘neurtu’ adierarekin, *jin*, *kausitu*, *laborari*, *laket izan*, *lili*, *lursagar*, *maite* ‘gustatu’ adierarekin, *mihise* ‘maindire’ adierarekin, *ohoin*, *orga*, *otto* ‘osaba’, *pott* ‘musu’ adierarekin, *so*, *suntsitu*, *ukaldi*, *ukan*, *untsa*, *untsalaz*, *urrats*, *uzkaili*, *zafratu*, *zingarrazpi*... Egia da hitz horietako zenbait Nafarroako iparraldean ere badirela, Bortzirietan hasi eta Erronkari bitartean, baina garbi dago eskualde horiek antzina Ipar Euskal Herriarekin izandako hartu-emanaren ondorio direla hitzok han izatea.

Ipar Euskal Herritik hartutako hitz ugarien ondoan, bakarra baizik ez dut aurkitu jatorriz nafarra dirudiena: *ja*, ‘deus, ezer’ esan nahi duena. Eta hizkuntzaren gainerako ezaugarrietan ere Nafarroako bereizgarri gutxi ageri da; hitz hasierako bokala sarri galtzea da nabarmenena. Nafarroako hizkera gehienetan bezala, Luzaiden ere ohikoak dira *karri* ‘ekarri’, *kasi* ‘ikasi’, *kusi* ‘ikusi’, *kuzi* ‘ikuzi [garbitu]’, *maztia* ‘emaztea’, *purdi* ‘ipurdi’, *turri* ‘iturri’, *zarri* ‘ezarri’, *zautu* ‘ezagutu’, *zorratu* ‘izorratu’...

Maileguak hartzeko orduan ere iparraldera begira egon da Luzaide. Handik hartu ditu hiztegian aurkitzen diren *abantaila*, *abokat*, *adreza*, *afera*, *alo*, *arrañatu*, *arribatu*, *azita*, *bakantzak*, *beterraba*, *bisaia*, *blu*, *boneta*, *burra*, *deja*, *deliberatu*, *drole*, *enkas*, *errefusatu*, *errenkontratu*, *errint* eta *errintsa*, *errobina*, *estai*, *estonatu*, *fier*, *finitu*, *fite*, *furtxeta*, *fu-*

titu, gara ‘tren geltokia’, *gato* ‘pastela’, *gormandiza, grilla, gudronoztatu, jenatu, juje, jus, kapable, karrota, kartier, komitategi, kostalet, kostuma, krabata, kuraia, kusi* ‘lehengusu/lehengusina’, *lanjeros, lapin, letra* ‘gutuna’ adierarekin, *lunetak, magasin* ‘denda’ adierarekin, *maluroski* eta *uroski, matalaz, miraila, mokanes, [o]moleta, muntra, mustatx, oto* ‘automobila’, *plastre, plazan* ‘ordez’ adierarekin, *posta, potreta, pozoin, present* ‘oparia’, *profitatu, promenatu, punitu, pusatu, salbaia, tapiza* ‘alfombra’ adierarekin, *trenkatu, trikota, tronpatu, ttantta* ‘izeba’ adierarekin, *usaia* ‘ohitura’, *xarmant, xeka, zitroin, zoinatu, zukre...*

Dena dela, hiztegia aztertu ahala zalantza bat etorri zait burura: berdin ote dira gauzak gaur egungo gazte jendearen jardunean? Garaztarrak ote dira horiek ere ala Hego Euskal Herrira begira jarri ote dira? Esan dezadan, horren harira, azken urteotan erdaratik hartu ditugun hitzak ia erabat falta direla hiztegian. Luzaideko izkribu zaharrak eta Luzaideko adinekoen hizkera izan da aztergai eta, hiztegiara begiratuta, ezin jakin ‘langabezia’, adibidez, Luzaiden nola esaten ote den: *xomaxa*, Ipar Euskal Herrian bezala, ala *paroa*, Hego Euskal Herrian moduan. Argigarri gertatuko zen horrelako zenbait hitz-gutxi batzuekin nahikoa zen-bildu izan balira. Gure artean oso hedatuta eta ondo sustraituta dagoen joera ikusten da horretan: adinekoen hizkeran, antzinakoan, jartzen dugula arreta, eta alde batera uzten dugula gaur egun egiten dena eta, beraz, bihar-etzi egingo dena.

Egiari zor, oso mailegu berriak izan ez arren, Luzaideko hiztegi horretan badira gaztelaniatik hartutako hitzak, ziurrenera Garaziko gainerako herrietan arrotzak direnak: *alkate, al kontrario, alrebes, bokadillo, de-*

sayunatu, diskutitu, karretera, karretilla, klinika, labadora, propina, pulmonia, rebista, resultado, seko (gelditu), *sello, siesta, subasta, zera* ‘espaloia’, *zerbeza, zigarro, zine...* Batzuetan iparraldetik eta hegoaldeetik sartutako hitzen lehia ikusten da: *ayuntamentu* eta *Herriko Etxe, kantzer* eta *xangre, panadero* eta *bulanjer, postre* eta *deserta, suerte* eta *xantza...* Hiztegiek inoiz argibideak ematen dituzte bikote horien indarraz. Esate baterako, *buxer*-en aldean “orain gehiago *karnizero*” erabiltzen dela zehazten dute (46. or).

Mailegu horien bidez, gainera, [x] ahoskera sartu da Luzaidera, Garaziko gainerako herrietan arrotza dena: *bia[x]ante, e[x]erzizio, [x]oditu, ka[x]a, kontze[x]al, re[x]imen, tar[x]eta...* ageri dira hiztegian.

Aldiz, azkenaldian Garazira sartutako berrikuntza zenbait ez dira Luzaidera hedatu. Horren adibide [R] ahoskera zintzurkaria, luzaidarren artean ‘*geka*’ *mintzatzea* deitzen dena. Hona hemen hiztegian jaso den lekukotasuna (s.v. **géka mintzátu**): “Donjándarrak géka míntzo díra eskwaráz; lehéngo zahárrak ez, bána oraiko gáztjak, dénak”.

Luzaideko hizkeraren kokagunearen auzia alde batera utzita, beste zenbait argibide ere aurki daitezke hiztegian; *gura* hitzaren gainera, esate baterako. Hitz hori Bizkaikoa dela esan digute beti, nahiz eta hitz elkartuetan Gipuzkoa gehienez ere baden, *azkura, botagura, logura, parregura, pixagura* tankerakoetan. Luzaiden aurkitzea izan da niretako ezustekoa, **jostagura** hitzean.

Hiztegia egiteko moduaz, berriz, hiztegiek ez direla arlo horretan ez adituak ez arituak aitortzen dute hiztegiaren hitzaurrean, baina zuzen bete dute lana. Bada, dena dela, pla-

zaratu nahi nukkeen eztabaidagaia: nola jarri behar dira sarrerak tankera honetako hiztegieta, herriko hizkeran ahoskatzen diren bezala, ala hitzak osorik idatzita eta, ahal dela, euskara batura egokituta? Lehenengo bidea aukeratu dute hiztegiileek eta azentuak eta goranzko diptongoak idatzi dituzte (**batajátu, kárjo, oján**), eta ahozko hizkerako laburdurak ere bere horretan utzi dituzte (**ljéra, préonak ojwín**).

Eta hauxe nire galdera: ez ote litzateke egokiago eta argiago **bataiatu, kario, libera, oihan, preonak oiuhu egin** sarreretan jartzea? Sarreraren ondoren, kortxete artean jar liteke herriko ahoskera eta baita, jakina, adibideetan ere. Horrela jokatuta, edozein irakurlek eroso ulertuko luke eta hizkuntzalariek ere bere lana egiteko aukera berbera izango luke.

Egia da hiztegiileek argiro aurkeztu dutela euren jokabidea hiztegiaren sarreran eta egia da, era berean, hizkuntza gaietan zertxobait dakienak ez duela arazo txikienik izango hiztegia erabiltzerakoan, baina luzaidar arrunta datorkit burura, eurek izan behar luketelako hiztegiaren lehen erabiltzaileak. Eta luzaidar arruntarendako zailtasun iturri gerta litezke idazkera bereziak. Badira, gainera, ilun samarrak diren sarreak: **badwajá?** ‘badoaia?’ edo **wartjár** ‘uhartear [Uharte Garazikoa]’, esate baterako.

Hiztegiaren egiturarekin jarraituaz, nabarmentzekoa da transkripzioak zuzen egiteko jarri den arreta eta zorrotasuna. Ez da ia batere akatsik eta, hiztegieta bereziki, esker-tzekoa da hori. Bestelakoan ere zuzentasuna eta zehaztasuna da nagusi, baina badira aipatu nahi nituzkeen pare bat gauza txiki.

Batetik, **gaindi** sarreran “ablai-boa galdegiten du” esaten da eta halaxe gertatzen da aipatzen dituzten adibide bietan: *pentze hartaik gaindi* eta *Ibañetatik gaindi*. Baina badirudi inesiboa ere onartzen duela. Behinik behin, *herrian gaindi* azaltzen da **itzuli** sarreran.

Bigarrenik, berriz, **mazúrta** hitzaren ordaintzat ‘marrubia’ eman da eta, ziurrenera, ‘masusta’ da ordain egokia. Hain zuzen, goraxeago datoreen **máuri** hitzari ere ‘marrubia’ jarri zaio ordaintzat, eta iruditzen zait horixe izango dela benetan dagokiona.

Laburbilduz eta amaitze aldera, oso lan onuragarria Peio Kaminok eta Patxi Salaberrik ekarri digutena: Luzaideko eta Garaziko hizkeraz, oraingoaz nahiz lehengoaz, ikuspegi zabala eta zehatza ematen duena, txukun eta egoki egituratua, egile biek joan den urteetan *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari honetan Luzaideko hizkeraren gainean plazaratu dituzten beste lan batzuekin ederki osatzen eta biribiltzen dena.

Xiberotarra-Zuberera. Le dialecte basque souletin

Jean-Baptiste Coyos

Donostia: Elkar, 2007, 153 or.

Zuberoako euskararen berri izateko aukerako liburua plazaratu du Jean-Baptiste Coyos mauletarrak. Zabalkunde lana da, era guztietako irakurleei egokitua, eta euskaraz eta frantsesez idatzia, Iparraldeko eta Hegoaldeko herritarrek irakurtzeko modukoa. Eta horixe da nabarmendu nahi dudan lehen gertakaria, badelako gurean horrelako liburuen hutsunea: ikertzaile adituek herritar xehearrendako idatzitako liburu xume, baina, aldi berean, zuzen eta argien beharra.

Hizkuntzalaritzan doktorea da Jean-Baptiste Coyos, *Le parler basque souletin des Arbailles. Une approche de l'ergativité* (Paris: L'Harmattan, 1999) tesiaren egilea eta, geroa, Akitaniako eskualdean hizkuntza politikako egitasmoen ardura izan zuena, 1999 eta 2003 bitartean. Beste liburu batean bildu zituen arlo horretan egindako gogoetak: *Politique linguistique. Langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne* (Donostia: Elkar, 2004).

Zuberoako euskaraz erakusten duen ikuspegi orokorra eta zabala da mintzagai dugun liburuan nabarmendu nahi dudan bigarren gertakaria. Zuberoako euskararen iraga-

na, antzinako idazleak eta idazlanak, euskara zuberotarraren ezaugarriak, euskalkia eta batua eta euskara eta frantsesa Zuberoan, etorkizunari begirako gogoetak eta egitasmoak... auzi eta ikuspegi asko agertzen da liburuan. Eta gai horien guztien artean badira bereziki aipatu nahi ditudan zenbait.

Hasteko, euskara batuaren aldarrri ozena eta gardena egiten du Coyosek. Gainerako euskaldunekin hartu-eman errazagoa izateko balio duela dio, eta baita euskara zuberotarra bera aberasteko ere, handik hartzen dituelako gaur egungo bizimoduak eskatzen dituen hitz eta egitura berriak. Zuberotar zenbaiten jokabidea salatzen du horren harira, euskara batua onartu nahi ez dutenena, euskara zuberotarrari kaltea dakarkiola uste dutenena. Coyosek, ostera, egia oso bestea dela dio: frantsesa dela, eta ez euskara batua, zuberotarra jaten eta galtzen ari dena.

Jokabide horren zergatiak eta arrazoiak ere aztertzen ditu Coyosek. Gainerako herrialde euskaldunetatik aldentuta, eta sarri Biarnori lotuta, ibili da Zuberoa luzaroan: hala administrazioz nola elizaz eta bizimoduz, eta horrek, jakina, era-

gin zuzena eduki du zuberotarren izaeran eta nortasunean.

Coyosek, dena dela, gauzak aldatzen ari direla ere badio. Gaur egun Zuberoako herriak Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluan, Euskal Herriko Garapen Kontseiluan, Euskal Kulturaren aldeko Sindikatuan eta Baionako Merkatal eta Industria Ganberan daudela gogora ekartzen du, eta euskalgintzan diharduten gazteek Euskal Herriaren eta euskararen osotasuna eta batasuna argiro ikusten eta gogotik onartzen dutela.

Euskara baztertu eta euren eguneroko jardunean erabat frantsesa darabiltenak omen dira zuberotarra goratu eta gainerako euskaldunetako loturak desegin eta ukatu nahi dituztenak, *Vous n'êtes pas "basques", vous êtes "manech"* diotenak. Euskara ez darabilten eta euren seme-alabei erakusten ez dieten horiek omen dira zuberotarraren goratzaile eta euskara batuaren aurkari sutsuak.

Euskarari berari begiratuta, Zuberoako ustezko zenbait bereizgarri inguruko alderdietan ere badirela dio Coyosek; Nafarroa Beherean, gehienbat, eta beraz, Zuberoa ez dagoela esaten den bezain bakartuta erakusten dutenak. Zuberoan eta Bizkaian dauden kidesasunak ere aipatzen ditu, dudarik gabe, Euskal Herriko bazter biotan gordetako arkaismoak direnak eta, azken batean, hizkuntzaren sakoneko batasuna salatzen dutenak. Zuberoako berezitasun asko gaskoitik etorritakoak direla ere esaten du eta, hain zuzen, horixe izan da zuberotarrak elikatu dituen iturri nagusia iragan garaietan. Gaztelaniatik ere elikatu dira, ekialdera ez ezik, hegoaldera ere sarri joan direlako zuberotarrak historian barrena. Eta Aragoitik eta Erronkaritik Zuberoara ere joan dira, batez ere XIX. mendean, Zuberoan espartin lantegiak sortu zirenean.

Dena dela, euskara batuaren beharra eta onura aldarrikatzeaz gainera, euskara zuberotarraren lekuaz eta balioaz ere mintzatzen da. Gure artean hain sustrai sakonak dituen uste ustela baztertzen du Coyosek: euskalkiak eta batua bata eta bestearen etsai direlako. Etsai egin ordez, bata bestearen osagai egiten ditu berak, eta bakoitzari bere esparru bereziak eta zehatzak ezarri.

Euskara zuberotarraren balio komunikatibo eta sinbolikoak aipatzen ditu, eta euskalkia dela etxe barruko transmisioan, irakaskuntzako hasierako mailetan, herrietako administrazioan, elizan, merkatuan, gizarte zerbitzuetan, Zuberoa barruko he-dabide eta kultura ekintzetan erabiltzeko tresna egokia. Aldiz, bigarren mailako eta unibertsitateko irakaskuntza, ikerkuntza eta telebista euskara batuaren esparruak direla aitortzen du. Alde horretatik begiratuta, euskara zuberotarraren zenbait ezaugarriekin arreta handiagoa eduki beharra eskatzen du; besteak beste, idazteko orduan bertako *ü* bokala aintzakotzat hartzea (gai horretaz zehatzago mintzatu zen "Zubereraren idazkeraz: fonetika, fonologia eta ortografia", *Lapurdum-7* (2002): 201-219).

Beste gogoeta bat ere agertzen du liburuan barrena: Zuberoako indarra nabarmentzen du, kulturaren esparru askotan dagoen aberastasuna eta kemena. Osasun oneko ikusten ditu pastoral, maskarada, kantagintza eta dantza, eta esanguratsutat jotzen du iraganeko moldeak gaurkotzeko ahalegina. 1982az gero lanean diharduen *Xuberoko Botza* irratiak ere oinarri sendo samarra daukala dio eta bertsolaritza ere lantzen hasia dela.

Hizkuntzari berari dagokionez, hiztegi elebiduna (*Frantsesa-eiiskara / eiiskara-frantsesa*: 1989-1993) eta zu-

berotarra ikasteko liburua (*Xiberoan euskaraz. Méthode de Basque souletin*: 2000) ondu ditu Junes Casenave-Harigilek, eta gramatika bat ere bai Jüje Etxebarnek, *Sü Azia* elkartearen eskutik plazaratu zena (*Eüskaraz Gramatika Llabürra Nik ere bai*: 2005). Eta nabarmentzekoa da hori guztiori 14.000 bizilagunera heltzen ez den herrialde txikian egiten dela, eta bizilagun kopuru urri horretatik ez direla 10.000ra heltzen euskaraz dakitenak. Harritzekoa benetan! Hego Euskal Herrian asko dira hiztun kopuru hori duten herriak, baina gutxi –baten bat baldin badago– horren emaitza ugaria eta aberatsa berdindu dezaketanak.

Baina Zuberoako alderdi beltzak ere agerian jartzen ditu Coyosek, gehienbat ikastoletan eta irakaskuntzako euskarazko lerroetan dagoen ikasle multzo txikiaz ohartuta. Euskaraz ikastea kaltegarri edo, behintzat, denbora galgarri dela uste omen dute zuberotar askok, eta frantsesari ematen diote lehentasun eta nagusitasun osoa. Zalantzarik gabe, Zuberoako gizartean eta bizi-

moduan euskarari zuzenbidez dago-kion lekua ematea da egin beharreko urratsa, eta lehenengo eta behin eta oroz gain, zuberotarrak eurak jabetu behar dira eginkizun horretaz.

Hitz bitan laburtzeko, Zuberoako gaur egungo egoera ezagutzeko helduleku eta euskarri ederra daukagu Jean-Baptiste Coyosen saioan, era erraz eta atseginean erakutsia. Hutsunerik izatekotan, bakarra ikusi diot nik: laburregia izatea. Zuberoaz eta euskara zuberotarrak gehiago jakiteko irrikaz gelditu naiz, neure jakin-mina ase ezinik. Oraingo saio honek etorkizunean osatzea eta sakontzea eskatzen duela iruditzen zait, eta Jean-Baptiste Coyos bera da hori egiteko lagun egokia: sortzez zuberotarra, hizkuntzalaritzan eta hizkuntzen bizitzan jantzia, eta kontzeptuak zuzen eta garden azaltzen dakiena.

Koldo Zuazo
Euskal Herriko Unibertsitatea